

HITZAK LEGE: AITA HIPOLITO LARRAKOETXEA.
(1892 -1976)
KANONISTA KARMELDARRA¹

1. Legelari euskaldun baten ekina

Inork galdetuz gero Aita Hipolito Larrakoetxea nor izan zen, erantzuna, berehalakoa eta bat-batekoa izan dezake horrek, euskalgintzaren ikuspegitik badihardugu behinik behin. Ezizenez, *Legoaldi*; bataioko izenez, Alejandro Larrakoetxea eta erlijio izendazioaz, Aita Hipolito, Familia Santuarena. Halaxe zen ezaguna Zeanuriko seme hau. Gaur egun, hala ere, deitura zabalena Aita Hipolito Larrakoetxea egokitu zaio.

Haren biografia luze eta mamitsu ondu du *KARMEL* honetan Luis Baraiazarra idazle prestuak. Printza batzuk ematea, nolana ere, jakingarri izan dakiok irakurleari, batez ere, orrialde honetan jorratuko dugun arlo kanonikoaren ikuspegitik.


Izan ere, Aita Hipolitoren lanik ezagunena euskarazko ipuingintzan eman zen. *Grimm Anayen Ipuñak* da haren emaitza, 1929. urtean argitaratua eta oraintsu, beste behin ere, gure eskuetara ekarria².

¹ Eskerrak Julen Urkiza karmeldarrari, hemen erabilgarri izan ditudan hainbat datu eta xehetasun eskuzabal eskaintzearen.

² LARRAKOETXEA, Hipolito, *Legoaldi: Grimm Anaien Berrogeita Hamar Ume Ipuin*. Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa. Sutondoan Sorta. Labayru Ikastegia, 2001, Bilbao .

Hortxe ditu euskal irakurleak bilduak eta euskaratuak ume ipuingintzan guztiz ezagunak eta hedatuak diren hainbat kontakizun eta pasadizo, egun literatura unibertsalaren zati direnak. Horren egileak Grimm alemaniar anaiak (Wilhelm eta Jakob) izan ziren. Esan dezagun, orobat, Aita Hipolito Larrakoetxea idazle eta legelariaren pareko, anaiotariko bat, Jakob Grimm (1785-1863), hain zuzen, zuzenbidearen iker-tzailea izan zela eta baita Savigny legelari aipatuarekin batera Zuzenbidearen Eskola Historikoaren sortzailea ere³.

³ WIEACKER FRANZ: *Storia del Diritto Privato Moderno*. Volume secondo. Giuffrè Editore, 1980, Milano: "Jacob Grimm (1.785-1863) proveniente da una famiglia di giuristi dell'Assia e rimasto presto orfano, fu dapprima allievo appassionato all'Università di Marburg, poi nel 1.805 a Parigi assistente e infine per lungo tempo intimo amico del pur tanto diverso Savigny. Addetto in Westfalia alla biblioteca reale di Kassel fino al 1.813, poi in servizio presso la biblioteca del Principe Elettore d'Assia, nel 1.828 fu chiamato come direttore di biblioteca e come professore a Göttingen. Qui nel 1.837, a seguito della sua opposizione (di natura morale e religiosa, non politica) contro la revoca della Costituzione del '33 da parte del re Ernst August, fu privato, assieme agli altri suoi colleghi di Göttingen, dell'ufficio e mandato in esilio. Queste circostanze portarono anche ad un mai più sanato estraniamento dal Savigny, soltanto mitigato dalla fedeltà e lealtà di Grimm. Nel 1.840 fue chiamato da Friederich Wilhelm IV all'Accademia delle Scienze di Berlino: l'anno 1.848 lo vide celebrato esponente del partito dinastico-imperiale nella chiesa de S. Paolo in Francoforte. I legami professionali e di lavoro che per tutta la vita lo legarono a su fratello Wilhelm giustificarono pienamente la caratteristica designazione collettiva di 'fratelli Grimm'" 87. orrialdea. "Questo incanto aleggia anche sul suo contributo alla storia del diritto che è quello lo ha portato a contatto con il giovane Savigny. In questo non-giurista esso deriva, non tanto dalla problemática più specificamente giuridica, quanto dall'inquadramento del fenomeno diritto nell'interno contesto culturale del passato tedesco. Questo interesse determina il piano, il titolo e il contenuto del lavoro *Von der Poesie im Recht*, degli immortali *Rechtsaltertümer* (a partire dal 1823) e della raccolta degli antichi usi giuridici tedeschi, i cui primi quattro volumi poterono essere curati da lui stesso". 88. orrialdea.



Bada, esan bezala, zergintza horretaz aparte, bestelako ekinna Aita Hipolito Larrakoetxearen biografian. Bestelakoa eta beharbada, lanaren ikuspegitik ordu gehien kendu ziona. Aita Hipolito Larrakoetxea fraide karmeldarra genuen eta ordenaren barruan Zuzenbide Kanonikoari emana.

Biografiaren nondik norakoek Erromara eramane zuten Hipolito eta bertan ikasi zuen elizaren legeria. Erromako ANGELICUM Ikastetxe Nagusian jardun zuen ikasle, *doctor iuris* titulua eskuratzen lehena, aurrerago debekatua baitzegoen titulurik eskuratzea. Harik laburrera, kargudun ere izan zen lege kanonikoetarako gorabeheretan eta bizitzan zehar, hainbat alditan, Zuzenbide Kanonikoaren irakaslea, Erromako Karmeldar Teresiarren nazioarteko ikastetxe nagusian zein bestelakoetan. Era berean, ordenaren barruko karguak izan zituen, probintzial eta aholkulari moduan, Markinako komentuan 1976. urtean hil arte⁴.

Egia esan, luze joango litzaiguke haren egitadak laburbiltzea. Luzeago, zalantzarik ez, horien edukia eta barne-kanpoguztiak adieraztea. Horrexegatik hobesten da, oraingo honetan, bestera jokatzea, hau da, Aita Hipolito Larrakoetxeak baitaratzen duen bikoiztasuna azaltzea. Horrek, ezinbestean, honako hau dakar: legelaritza eta euskaltzaletasuna aldeztu aurretik jartzea. Horren ondorengoa dugu haren egitekoa aiez aiez garatzea, zer-non egokiak plazaratzeko asmotan.

Bitasuna aipatu dugu Aita Hipolito Larrakoetxeaz dihardugula. Bitasun horretatik dator, besteak beste, eguneroko langintza horretan -Zuzenbide Kanoniko gaietan- euskara sartu beharra, arrotz eta urrun zitzaion gai bati oratuta.

Arrotz eta urrun ote? Lehen soaldi batetik egina, hala dirudi. Ez horrenbeste, Elizak euskalgintzan zuen tradizio luzeari erreparatzen badiogu. XIX. mendean jada, konta ezin ahalakoak

⁴ URKIZA, J.: *Karmeldarrak Markinan (1691-1991) Historia eta agiriak*. Karmel Soita 5. Larrea-Zornotza. 1992.425-426 orrialdeak.

ziren eskuliburu, bederatziurren eta kofradien arautegiak. Heren ordenaren erreglak, kofradien estatutuak...euskaratuak izan ziren etengabe aldi horretan. Ez, ordea, Elizaren lege nagusiaren tankerako testu luzea bezain edukitsua. Jakina denez, testu horrek Elizaren zuzenbide historikoa batu ez ezik, garatu ere egin zuen.

Horra, beraz, Aita Hipolito gazteak ezagutu zuen berrikuntza. 1917. urtean *Codex Iuris Canonici* aldarrikatu zuen Aita Santu Benedicto XV.ak. Horra Elizaren Araudi Nagusia zehaztua eta bildua, Kode baten moduan jarria.

Baten batek galde zezakeen ea lan horretan ez ote zuen Elizak egin estatu laikoek alde zurretik asmatu zuten gauza bera. XIX. gizaldian Europako estatu gehienek ondu zituzten kodeak, bertara biltzen zituztela indarreko legeak, modu arrazoizko eta abstraktu batean antolatuak. Eredua zuten Napoleonen Kodea (1804). Haren segidako kode zerrenda luzea itxi zuen, 1900. urtean, Alemaniako kodeak (*BGB*).

Elizaren kasua, ordea, bestelakoa zen. Hona, besteak beste, hitz argigarriak: "Tenía que haber diferencias fundamentales entre el Codex Iuris Canonici y el Code napoleónico. Nada hay que extrañar cuando en aquel encontramos formulados principios generales de Derecho natural, normas de Derecho divino positivo y regulaciones concretas dimanadas de las personas que tienen en la iglesia poderes de legislar, desde la declaración de una verdad de fe hasta el detalle concreto y minucioso de un trámite procesal..."⁵

Kode berri horren aurrean erabaki zuen Larrakoetxeak euskararen testua egitea. Itzultze lanean murgildu zuen bere burua eta luzebailuze jardun zuen, gaztaroko testua argitaratu gabe geratu eta gerora, zaharsaritu ondoren, berrartu, zorroztu

⁵ MIGUÉLEZ DOMINGUEZ, LORENZO, ALONSO MORAN, SABINO eta CABREROS DE ANTA, Marcelino: *Código de Derecho Canónico*. BAC, La Editorial Católica, 1962, Madrid. José López Ortizek idatzi hitzaurrearen XVI. orrialdean.

eta argitaratu baitzuen, *Kardaberaz Bazkunaren* eskutik. Bazkun horren bilduman 32. zenbakia du liburuak eta lege gordailua 1978. urtekoa da.⁶

Liburu horren sarreran, Aita Hipolito Larrakoetxearen ezau-garriak ematean, honakoak irakur daitezke: *ELEIZ-ARAUDI AU. Lege-gizona eta euskal-idazlea, biak batu eta alkatu dira emen. Gaztetako lana da, izan, 1924 inguruan amaitua. Orduko euskal-giro eta bizitualdi baten agergerri ederra. Eleizalde-tar Koldobika zanaren asmoai jarraituz ibilli zala dirudi. Jaun onek Bizkai-ko Aldunditik ainbat lan egin eta eragin izan eban euskerea edozertarako gai egin-naiez, edozein gaitarako testoak atera gurez. Eleizaldearen eriotzeak eta 1923-ko zapalketa-aizeak ondatu eban dana. Orduan egindako lan askoren aztarrenik ez da gelditu. Zorionez, Aita Larrakoetxeak egiña, Eleizaren lege barriak euskal-soiñekoz jaztea, ez zan galdu. Eta azken-urteetan Erroma-ra bialdu jakon eta berak makiñaz jo eta arean (zerbait) orraztu egin eban. Lan au amaitu eta laster il zan bera, Markiña-ra atsenden bila etorrita⁷.*

Horraino hark egindako ahaleginaren zerak. Larrakoetxearen arrazoiak aditzeko tenorea ere, liburu horretan bertan, zerk bultzatu zuen zehatz-mehatz adierazia: *Nire asmua lan au egitorduan erderarik eztakien euskaldunentzat egitea da; erdereak dakienak eztauke onen bearrik, nik euskeraztuten dodan liburu au aspaldian erdera orreitara ederto itzulita daukelako⁸.*

Areago, Aita Hipolitoaren asmoen berri xehekiago ematen du berak, legelaritzaren eta euskaltzaletasunaren uztarketa

⁶ LARRAKOETXEA, Hipolito: *Erromako Eleizearen Araudia*. Kardaberaz Bilduma 32. Librería Técnicas de Difusión, 1.978, Tolosa.

⁷ LARRAKOETXEA, Hipolito: *Erromako Eleizearen Araudia*. Kardaberaz Bilduma 32. Librería Técnicas de Difusión, 1.978, Tolosa.

⁸ Ibidem, 6. orrialdean.

nondik bideratu zuen plazaratzeko: *1917 garreneko urte orretan argitaratu eben Erroma'n Elexearen ARAUDI barria, nik gure gazteai antxe gure Begoñako etxean irakatsi bearako neutsena... Garai orretan euskereak maiteminduta bizi nintzan... Euskerak maite-minduta bizi nintzala esan dot. Min orrek zirikatuta Eleiz-Araudi barria euskeraztu neban*⁹.

Asmoak asmo, ezezagun igaro da Aita Hipolito Larrakoetxearen lana eukal legelari gazteentzat. Menturaz, euskararen historian lehen lege-bilduma izateak ez dio horri ekarri inolako ondoriorik, ez Elizaren erabileraren aldetik, ezta abokatu euskaldunen ezagueraren bidetik ere.

Urrun eta eskuragabe gertatu da Aita Hipolito Larrakoetxearen lan juridikoa Euskal Herrian bertan, salbuespenak salbuespen. Azterlari fin eta zorrotz batzuk izan dira, gure historiaren zantzu euskaldunak erakutsi dizkigutenak.

Egunero ditugu aldarriak euskararen ofizialtasunaren aldetik. Egunerokoa ere, euskara justizia, lege eta abarretan erabiltzeko gogo-plazaratzea. Premia handikoak, hortaz, horretarako lanabes eta tresnak. Saihets ezinak, bidegintza horretan, Aita Hipolitoren moduko lanak.

Asmo horietatik abiatua, Gotzon Lobera euskaltzale leberak argitaratu zuen, zortzi urte jada, gure *KARMEI* honetan, Aita Hipolitoren inguruko artikulu esanguratsua, hark borobildutako itzulpenaren zenbait kontu argitzen zituela. Bazioen hark –eta gure egiten dugu hori- : *Gaur egun eragozpen gutxi-ko begitantzen zaizkigun arazoek egundoko traba ekarriko oi zioten Aita Hipolitori, batez ere ordura arte alor hura jorratze-ke eta maila apalean baino lardaskaturik ez zegoela erreparatuz gero. Eliz arazoetan, legelari legez abade, buru-belarri sartuta ibili zen gizon honen lana ez ahal da alferrik galduko!*¹⁰

⁹ LARRAKOETXEA, Hipolito: “Nire bizitzako gora-bera batzuk batzuk”. *Karmel* (1976) 91

LELENGO IDAZTIA

ZER ASKOTARAKO ARAUAK

1g. araua. Araudi onetan Sorkaldeko Elexearen jardunbidea be aitatu arren, Sarkaldeko edo Latel-Elexea bakarrik begiratuten dau, ta Sorkaldekoa eztau lotuten alango legcen baten mamiak Sorkaldekoa be bardin lotu ezpalegi.

2g. araua. Araudi onek geyen baten eztau ezer aginduten yaupa oso santua zelan egin, ikurtonak eta ikurton-antzekoak zelan emon eta beste Jauresketak zelan egin Latel-Elexeak ontzat emondako liburuak zaindu bear direala aginduten dabezan legeai buruz. Beraz Jaureskuntzeari buruzko lege guztiak len besteko indarra izango dabe, bat edo bestea beren-beregi aldatu ezpalegi.

3g. araua. Araudi onetako erabagiak eztabez ilten Aita Santuak Laterriakaz egindako itunbenak, ezta eurai ezertariko ikuturik egin be; orregaitik len besteko indar osoa izango dabe Araudi onetako aginduak gora bera.

4g. araua. Norberenak egindako eskubideak eta Aita Santuak orain artean berezko nai legezko norbaitzui emondako kutun-legeak eta eskupekoak, oraindiño zutunik eta kendu barik balegoz, bizirik yarraituko dabe Araudi onetako arauak agirian kendu ezpalegiz.

5g. araua. Arauon aurka orain artean bizi izan direan ekanduak, bai edo nongoak direala bai nonbaitekoak direala, arauok txartzat emon balegiez, zuzenaren ustela direalakoan kendu bediz naita zar-zarrak izan, eta etxakie barriro biztuten itxi bear; ostantxean, eun urtekoak edo zarraren-zarrez noiztikoak direan be iñork eztakienak balira, bizirik itxi daitekez, nongoak eta nortzuk ikututen dabezan begiraturik, bertako Goterkizañak ezin kendu leikezala uste balegie. Ostantxeko guztiak kendutzat emon bediz Araudi onek beren-beregi besterik erabagi ezpalegi.

6g. araua. Araudi onek geyen baten orain artean bizi izan dan jardunbidea yagon daroa, naita aldakuntza egokiak noizean-beinka ekarri. Beraz:

1.º—Edozein lege, bai edonongoa dala bai nonbaitekoa dala, Araudiaren aginduen aurkakoa il egiten dau, nonbaiteko legeen bateri buruz besterik oartu ezpalegi;

Lan hori alferrik galtzeko arriskutan dagoela eta horretarako arrazoiak eite desberdinekoak direla ere ezin uka. Bateko, testua bera indargabeturik egoteak dakarren eragina, Eliza Katolikoak 1983. urtean Zuzenbide Kanonikoaren Kode Berria aldarrikatu baitzuen. Besteko, euskararen gorakada honetan, Zuzenbide Fakultateetan ments dugulako Aita Hipolito Larrakoetxearen moduko legelarien lorratza, uste izanik -oker, ziur asko- egungoa eta berehalakoa beti dela onena eta egokiena.

Zabal jardun dezakegu Aita Hipolitoaren ekarriaz euskararen ikuspegitik. Oraingo honetan, alabaina, haren bestelako zokomikoak aipatu beharrean gaude, euskaraz ez ezik, erdaraz ere gauza ugari txo agertu baitzituen karmeldar arratiarrak Elizaren lege arazoetan.

2. Kanonistaren lana eta izana

Euskaraz ez ezik, gazteleraz, latinez eta frantsesez argitaratu zituen bere zerak Larrakoetxeak. Horren emaitzak luze-zabal zerrendaratuak ditu KARMEL honen irakurleak zenbaki honetan bertan¹¹. Ez noa ni, beraz, bide horretatik gauzak sakontzera.

Jakingarriagoa izan dakiguke, hala ere, osterantzekorik jakitea, alegia, kanonista lanetan egin zuen lana nondik eta nola bideratu zuen Larrakoetxeak.

Haren aitortza adi dezagun. Ordenaren aginduei men egitea izango da horren arrazoi nagusia. Aita Hipolito abade berri genuen 1916. urtean. Horren hurrengo, nagusiak galdetu ea zer ikasi nahi zuen. Egin gogo zuena baino, agindu zitzaio-

¹⁰ LOBERA, Gotzon: *"Itzulpen arazo batzuk Aita Hipolito Larrakoetxearen Erroma'ko Eleizaren Araudia-ren elizako kargu-mailakaztertueran"* Karmel 208 (1994) 4 .

¹¹ LOBERA, Gotzon: *"Itzulpen arazo batzuk Aita Hipolito Larrakoetxearen Erroma'ko Eleizaren Araudia-ren elizako kargu-mailakaztertueran"*, Karmel 208 (1994) 4 .

na bete zuen hark: *Gure Erkaba Ezekiel Aba, gure Lekaidi osoaren Nagusia izana zan. Aurrerantzean zer ikasteari ekiteko gogoia neukan itaundu eustan. Nire erantzuna: izkuntzai buruzko ikaskizunari. Aren erantzuna: zuok arratiarrok lege-zale zarieneko ospea dozue-ta, nik lege-gizon izatea erabagi dot*¹².

Ezekiel Abaren erabakia, hortaz, zin-zinez erabakigarria izan zitatzion Larrakoetxeari. Horren ondorioz, sakontze lana egin behar izan zuen eliz-legeetako esparruan. Ikasle zein irakasle, laster eskuratu zuen hark halako ospe eta entzutea, Zuzenbide Kanonikoaren ikuspegitik.

Hirutara batu ditugu guk haren eginahalak, hiruotan haren ekarria xehetuta ematen dugula:

2.1. Codex Iuris Canonici - Elizaren Kode Berria

Esan legez, 1917. urtean aldarrikatu zen Elizaren Kode Berria. Egundoko gertaera izan zen hori, Elizak mendeetan zehar bizi zuen legeriaren aurrean. Gure Aita Hipólito Larrakoetxea, urte horretan bertan, kode berriaren azaltzaile, *El Monte Carmelo* aldizkarian: *Por manera que en esto como en otras muchas cosas el nuevo Código Canónico se ha apropiado los legítimos adelantos de los modernos Códigos de las sociedades civiles, con la diferencia de que en aquél se designa con el clásico y sagrado vocablo de canon a lo que en éstos se llama artículo*¹³.

Kode berriaren hizkerari ere ohar bereziak egiten dizkio Larrakoetxeak, menturaz, euskaratze lanean aintzat hartuko zituena: *Por el contrario en el nuevo Código están los canones ex-*

¹² LARRAKOETXEA, Hipólito: "Nire bizitzako gora-bera batzuk batzuk", Karmel (1976) 90.

¹³ LARRAKOETXEA, Hipólito: "Breves comentarios sobre el nuevo Código Canónico", Monte Carmelo 417 (1917) 349.



DI SUA SANTITA'

DAL VATICANO, 16 Luglio 1935.

N° 147653.

DA CITARSI NELLA RISPOSTA

LA SANTITA' DI NOSTRO SIGNORE, avendo costituito una "Commissione per la redazione del Codice di Diritto Canonico Orientale", si è benignamente degnata di annoverare fra i Consultori della stessa Commissione il Rev.mo Padre

P. IPPOLITO DELLA SACRA FAMIGLIA

dei Carmelitani Scalzi.

Tanto si partecipa al medesimo Padre Ippolito della Sacra Famiglia, per sua opportuna intelligenza e norma.

E. Card. Tacchi

Rev.mo

Padre IPPOLITO DELLA SACRA FAMIGLIA

dei Carmelitani Scalzi

*presados en forma breve, concisa y clara, dejando a la afición y buen juicio de los canonistas el averiguar y fijar los motivos que le impulsaron y fines que tuvo el legislador al promulgarlos; adelantando grandísimo que ahorra incalculable tiempo y paciencia al canonista, y hace que cualquier sacerdote pueda con relativa facilidad cumplir con el deber que le incumbe de saber los cánones; deber que hasta ahora era de todo punto imposible de llenar...*¹⁴

Txalotzekoa zen, beraz, Larrakoetxearen iritzian, kode berriaren xehetasunak eta edonora zabaltzekoak, batik bat Ekialdeko Elizeetara. Hala egin zuen Eliza Katolikoak ere. Eta bide horretan berebiziko partaidetza izan zuen Aita Hipolito Larrakoetxea karmeldarrak.

2.2. Sorkaldeko Elexari Buruzko Bazkuna

Elizak berehala nabarmendu zuen legelana hedatu beharra. 1917. urteko lege testuak ondorio itzelak ekarri zituen Mendebaldeko Elizarentzat. Ekialdekoak, berriz, sakabanaturik eta barreiatuak zituen lege testuak erritu eta jatorri desberdinetako erakundeen artean.

Lan luzea egokitu zitzaion elizari Ekialdeko Elizen legeak batzea. Hasiera izan zuen horrek 1929. urtean eta azkena, oraingoz bederen, 1990. urtean etorri da *Mendebaldeko Elizen Kanon kodearen* eskutik.

Prozesu luze horretan, Aita Hipolito Larrakoetxea protagonista izan zen. Legegintzarako bide astunean, haste-hastetik, berori. Hona horren frogak: *En el primer Colegio se incluyeron catorce sacerdotes elegidos, por expresa voluntad del Sumo Pontífice, ...Posteriormente, a estos sacerdotes se añadieron cuatro religiosos, residentes en la Urbe, muy expertos en Derecho canónico*¹⁵.

¹⁴ LARRAKOETXEA, Hipolito: "Breves comentarios sobre el nuevo Código Canónico", Monte Carmelo 417 (1917) 351



DI SUA SANTITÀ

N° 71352
DETTATO NELLA RESIDENZA

DAL VATICANO, 8 Giugno 1928

a SANTITÀ di NOSTRO SIGNORE si è benignamente
degnata di amoverare fra i Consultori
della Sacra Congregazione Pro Ecclesia
Orientali il Rev.mo P.

Ippolito della S. Famiglia

Carmelitano scalzo.

Tanto si partecipa allo stesso P. LIPO
LIPO DELLA S. FAMIGLIA, per sua intelligen
za e norma.

A. C. J. Sanyani

Rev.mo Padre

IPPOLITO DELLA S. FAMIGLIA

Carmelitano scalzo

Professore di Diritto Canonico nel Collegio
di S. Teresa

Lau abade horien artean, kanon kontuetan puntarengoa, Larrakoetxea. Berak idatzia aldera dezagun hona: *Sorkaldeko Elexen legeak Sarkaldekoaren antzeko barriztutea bear ebela-ta, artarako langilleak izentau ebezan. Langilleoi lagun egiteko Sarkaldeko Elexako lau lege-gizon izentau ebezan. Eurotariko bat ni, 1930 garren urteko Loreillan*¹⁶.

Batzorde horren ibilera zer-nolakoa ere azaltzen digu Aita Hipolitok: *Astero batzar bi geunkazan: asteartean eta bari-kuan. Batzarrotarako ebazkizuna gertatzea nire lana. Lan az-tuna. Sorkaldeko elexen legetzea arakatu-bearra. Bost urte ero-an euskuzan lan orrek*¹⁷.

Bosgarren urtean, batzorde berria eratu beharrekoa iritzi zi-tzaion Aita Santuari eta 1935. urteko ekainaren zazpian hala erabaki zuen. Batzorde berri horretara lau kardinal ekarri, bes-teak beste, Eugenio Pacelli bera, gerora Aita Santu Pio XII.a izango zena. Eta horien laguntzaile, hamahiru aditu eta ahol-kulari. Tartean, beste behin ere, Aita Hipolito Larrakoetxea, Pacelliren izendazioa eskuan zuela. Gauzatu beharrekoa, ho-nako hau: *La principal tarea del Colegio de Consultores fue la de examinar las observaciones de los Obispos orientales envia-das a los "esquemas" anteriormente redactados y añadir sus consideraciones para someterlas a los Cardenales miembros de la Comisión. Todo este trabajo fue realizado de forma excelen-te durante setenta y ocho sesiones, la última de las cuales se tu-vo el 3 de noviembre de 1939*¹⁸.

¹⁵ ACEBAL, Juan Luis eta AZNAR, Federico J., beste batzuen artean: *Código de Cánones de las Iglesias Orientales*, Biblioteca de Autores Cristianos, 1.994, Madril, 18. orriialdea.

¹⁶ LARRAKOETXEA, Ipolito: "Nire bizitzako gora-bera batzuk batzuk", Karmel (1976) 91-92.

¹⁷ LARRAKOETXEA, Ipolito: "Nire bizitzako gora-bera batzuk batzuk", Karmel (1976) 93.

¹⁸ ACEBAL, Juan Luis eta AZNAR, Federico J. beste batzuen artean: *Código de Cánones de las Iglesias Orientales*, Biblioteca de Autores Cristianos, 1.994, Madril, 19. orria.

Ostera ere, entzun diezaiogun Aita Hipolitori: *Legetza ori Araudi barrian ezarri bear. Orretarako lau kardenalek osotuten eben Bazkun berezia sortu eben eta Bazkun orreri Aolkariak emon eutsazan, sorkaldeko Elexa bakotxetiko bat eta ganera ordurarteko zeregiñean lankide izan gintzazan Sarkaldeko Elexako laurak. Orain be astero batzar bi, eta nik batzarretako ebazkizuna gertatu bear*¹⁹.

Zertan gailendu zen ere berak esanda dakigu. Izatez, kanonista zen Larrakoetxea; jakitez, agidanez, ezkontzaren arlokoak aldekoagoak: *Nire jakitea erabiltzeko zeregiña laster emon eusten. 1928 garreneko bagillaren amairugarrenean Sorkaldeko Elexeari buruzko Bazkunaren Aolkari egin ninduen. Ezkontza-auziak ziren geyen bateko ebazkizunak. Ni geyen baten ezkontzaren gauzazkotasunaren aldezlari*²⁰.

Lan isila eta nekeza, beraz, Aita Hipolito Larrakoetxeak ondu zuena. Beste askotan legez, ezezaguna euskal legelarien artean.

2.3. Osterantzeko arazo kanonikoak

Larrakoetxearen eragina, dena den, ez zen kodegintzara murriztu. Larrakoetxeak gai anitzetan erakutsi zuelako bere burua, arlo kanonikoan batik bat. Lehen esan legez, *KARMEL* honetako beste leku batean aurkituko ditu irakurleak datu horiek, xehe-xehe emanak²¹.

Aita Hipolito Larrakoetxeak bazuen, bestenaz ere, historiako ezten zorrotza. Azpimarra ditzagun, denon ezagupiderako, horren inguruko bizpahiru titulu: *Erección de la Reforma Teresiana en provincia independiente*, Monte Carmelo 81 (1973) 59-120. *La Consulta. Estudio histórico-jurídico*, Monte Carmelo

¹⁹ LARRAKOETXEA, Ipolito: "Nire bizitzako gora-bera batzuk batzuk", *Karmel* (1976) 93.

²⁰ LARRAKOETXEA, Ipolito: "Nire bizitzako gora-bera batzuk batzuk", *Karmel* (1976) 93.

²¹ URKIZA, Julen, *Aita Hipolito: bibliografía*.

77 (1969) 153-189, 341-368; *Derecho penal procesal de la Descalcez Carmelitana primitiva*, Monte Carmelo 103 (1995) 493-505. Ezin alboratu, edozelan ere, latinez *Analecta Ordinis Carmelitarum Discalceatorum* aldizkarian idatzitakoak.

Anitzetan jazo da zuzenbidearen norabideak historiaren zirrikituak ekarri dituela denon gogora. Izan ere, bi-biak nahasi ziren XVI. mendean. Ardatz batzuk korapilatu ziren orduko hartan Karmeldar Ordenaren barruan. Barne-erreforma, karmeldarren *arteko tirabirak eta auzi-mauziak puntu latz eta mingots batera* iritsi ziren. Gertaeren agerle, bi karmeldar ospetsu eta aipatu: Gracián eta Doria. Urrun ez, Ordena bereko bi santu, entzute handikoak: Santa Teresa eta San Joan Gurutzekoa.

Aurkari gertatu ziren Gracián eta Doria afera hartan. Bata, Ordenaren Nagusia; bestea, umotzen eta zertzen zegoen Karmeldar Teresiarren eite berriaren ordezkaria. Auzia, ezinbestean, ebatsi beharrekoa. Hala gertatu eta emaitza, bistan da, karmeldar ortozien mesederako lerratu zen. Horren argigarri, karmeldar horien historia luzea.

Iritzikerietan ibili gabe, zehatz eta distiratsu egin zuen lan Larrakoetxeak, garai hartako zertzeladak emanaz. Arratiarraren goresle, Aita Bruno frantses karmeldar bipila. Haren hitzak go-goangarriak: *Tout cela devait être dit, avant d'aborder la magnifique étude historico-juridique, encore inédite du R.P. Hippolyte de la Sainte-Famille, dont nous avons la bonne fortune de publier des extraits...labeur précieux de l'ancien professeur de Droit canonique à notre Collège International...*²²

3. Omenak eta gogoramenak

Badator, beraz, Aita Hipolito Larrakoetxearen omenez aitortzak egiteko garaia. Betoz, bestalde ere, gaur egungo euskal

²² P. Hippolyte: *Le conflit Doria-Gratien avec une présentation du P. Bruno*. Extrait de "Amour et Violence". 1948 (?). 195 orr.

legelarion ardura eta kezka, gure aurrekoen egitadak zabal ditzagun belaunaldi berrien artean.

Badira Euskal Unibertsitateak. Horietan ere, Zuzenbide fakultateak eta euskaraz lege ikasketak egiten dituzten gazte jakinguratsuak. Horiei azaldu behar dizkiegu guk geuk, euskaldun irakasle dihardugunok, erdara itogarrietatik aparte ere, gure-gurea dugun aspaldiko euskaldun legelarien erakutsia.

Utikan kontu zabar horiek! aldarrikatuko dute batzuek, berri-berriaren gosez amorraturik. *Betoz balakoak!* erantzun beharko zaie horiei, eta Aita Hipolito Larrakoetxearenak begien aurrean jarri, horien jakitun izan daitezen.

Andres Urrutia